



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloa, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea

2019.URTEKO TXOSTENA

SARRERA	2
1. ESPARRU OROKORRA	3
1.1 Jarduketa-esparruak:	4
1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna:	6
2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:	7
3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERLANA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK	8
4. KEXA-PROZEDURAK:	8
4.1. KOMUNIKAZIOAREN ETA PUBLIZITATEAREN INGURUKO 2019KO KEXEN ESPEDIENTEEI BURUZKO EKARPENAK ETA KONTRASTEAK:	10
4.2. BESTE HAINBAT EREMUREN GAINEKO KEXAK:	15
5. 2018. URTEKO GOMENDIOEN JARRAIPENA:	23
6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:	23



SARRERA

Urteko txosten honetan, Emakundek 2019an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko diskriminaziorik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren (3/2012 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa).

Aipatutako artikuluekin bat etorriz, lau jarduketa-mota egin dira:

- Esparru orokorra.
- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexen prozedurak.
- Kexen jarraipena.
- Koordinazio- eta kolaborazio-mekanismoak beste erakunde eta instituzio batzuekin.

Txostenaren ataletatik lehenengoak sektore pribatuan sexuan oinarritutako diskriminazioa pairatu duten herritarrak defendatzeko jarduketa-esparru orokorra du hizpide, eta erantzun diren kontsulta, kexen datu orokorrak eskaintzen ditu; bigarrenak, eskaini diren berehalako aholkularitzen gaineko informazioa jasotzen du; hirugarrenak, idatziz erantzuten diren eta aldez aurreko azterketa behar duten kontsulten gainean informatzen du. Halaber, kexen prozedura ere hartzen du barnean, arreta berezia eskainita komunikazio eta publizitate sexisten gainekoei. Azkenik, organismo eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak zehazten dira.



1. ESPARRU OROKORRA

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zuen, sexu-diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa; Defentsa Erakundearen funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.

Otsailaren 16ko 3/2012 Legeak, zeinak aldatu egin baitzituen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea, kendu egin zuen Defentsa-erakundea, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitu zizkion defentsa-erakundearen edukia, eskumenak eta funtzioak; nolahi ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:

- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskatuta, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.




- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

1.1 Jarduketa-esparruak:

Herritarren berdintasun-eskubideen Defentsarako arloak hainbat jarduketa-eremutan dihardu. Batik bat, zuzeneko aholkuak ematen ditu, telefonoz nahiz aurrez aurre. Ondoren, azterlanen bat behar duten kontsultak edo aholkuak daude, eta horiek idatziz erantzuten dira, posta elektronikoz, normalean. Hirugarren jarduketa-eremua kexei dagokie.

- Zuzeneko arretarako bulegoen jarduera (aurrez aurreko eta telefono bidezko aholkularitza).
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Ikerketa-prozedurak behar dituzten kexak.

2019an zehar, guztira, 255 zerbitzu eman dira herritarren arretarako bulegoetan. Aurretiko azterlana eta kexa-prozedurak eskatzeagatik idatziz erantzundako kontsultak guztira 131 dira, eta horietatik 66 kontsultak izan dira (% 50,4), 65 kexak (% 49,6).




Idatzizko kontsultetan eta kexetan, eskatzaileek erabilitako komunikazio-bide nagusia posta elektronikoa izan da. Ez ordea publizitate eta komunikazio sexistei buruzko kexak; horiek mugikorretarako Begira aplikazioaren bidez heltzen dira. Aplikazio horren bidez, edonork bidal ditzake publizitate eta komunikazio sexistaren inguruko kexak.

Zerbitzu horrekin komunikatzeko gaztelania erabili da, batez ere; 14 eskaera aurkeztu dira euskaraz, eta 2 elebitan. Prozedura horiek eskatu dituztenak emakumeak izan dira gehienak (93), gizonak % 10, erakundeak % 15 eta % 5 ofizioz abiarazi dira, edonork dela ere eskubidearen titularra edo kasuaren xede-objektua.



1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna:

Prozedura horietako gehienak lan-arlokoak dira (% 45), bigarren arlo nagusia komunikabideak eta publizitatea izan da (% 24), % 16 beste gai batzuei (gehienbat zerbitzuei) buruzkoak izan dira, eta, azkenik, kirol-arlokoak, % 5. Lan-arlokoetatik gehienak amatasun-, edoskitze- eta familia eta lan-bizitzaren kontziliazio-eskubideari buruzkoak izan dira.





2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak zuzeneko arreta emateko bulegoak dauzka EAEko hiru hiriburuetan. Hala, arreta hobea eskaini diezaieke herritarrei. Bulegootan, aurrez aurreko aholkuak emateaz gain, telefonozko kontsultei ere erantzuten diete, Emakunden herritarren berdintasun-eskubideen defentsaren arlorako dauden langileek.

2019an zehar, guztira, 255 zerbitzu eman dira herritarren aurrez aurreko arretarako bulegoetan. Gehienak, lan-arloari buruzkoak izan dira, eta, zehazki, erdiak Familia-etxeko zerbitzuari buruzkoak. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak arreta pertsonalizatua ematen die Familia-etxeko zerbitzuko langileei eta enplegatzaileei. Hala, Familia-etxeko zerbitzuko langileek, emakumeak gehienak, tratu zuzena jaso ahalko dute lan-harremanetan.

Azkenik, 49 aholku-jarduera egin dira genero-indarkeriaren gainean, eta beste 45 banantze- eta dibortzio-prozeduretan, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen eskumen-arlokoak izan ez arren, askotan jasotzen baitira horien gaineko kontsultak. Gainera, ugaritu egin dira arazo ekonomikoak, lan-arazoak eta etxebizitza-arazoak dituzten emakumeen aholku-eskaerak.

Kontsulta mota	
Informazio eta arreta orokorra	34
Bikote- eta familia-harremanak	45
Indarkeria	49
Enplegua	103
Beste batzuk	24
	255



3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERLANA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK

Idatziz erantzun diren kontsultak, aurretiaz aztertu beharrekoak izateagatik, 2019an 66 izan dira guztira. Eskaera horiek aipatzen dituzten arrazoiak, besteak beste, lan-esparrukoak dira (47); kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da (13). Azken esparru horretan berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina hala ere, eskaera horiek idatzizko orientabideak eta aholkua jaso dute. Zerbitzuen eremuan 2 aholkularitza zenbatu dira; biak elkarteen eremuari dagozkio; eta azkenik, idatziz erantzun dira hezkuntzari buruzko hiru kontsulta.

Lan-arloan, kontziliazio-eskubideei buruzko kontsultak nabarmendu dira; zehazki, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua onartuz geroztik, kontsulta gehiago egin dira amatasun- eta aitatasun-baimenari buruz, edoskitze-baimena baliatzeari buruz, eta, oro har, familia eta lan-bizitza kontziliatzeari buruzkoak, 6/2019 Errege Lege Dekretua aplikatuta. Nabarmentzekoa da, halaber, azken urteotan ugaritu egin direla enpresetan sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpenetarako protokoloak onartzeari eta aplikatzeari buruzko kontsultak.

4. KEXA-PROZEDURAK:

Gaur egun, zabala eta konplexua da sexuan oinarritutako diskriminazio-egoeretan dauden herritarrak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa. Jarraian aipatzen da zein diren, orokorrean, berdintasunerako eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten oinarritzko arauak:



- Emakumearen aurkako diskriminazio-era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW); NBERen esparruan hartutako nazioarteko arau hori dela bide, estatu sinatzaileek hitzartu dute emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea, behar diren bitarteko guztien bidez eta luzapenik gabe. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» dela jotzen da sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarritzko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminaziorik gailendu.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazioa baztertzeko duela, zuzeneko edo zeharkako izan, sexu arrazoiagatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –3/2012 Legeak aldatuta– pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du, zuzena ala zeharkako izan eta edozein dela ere horretarako erabiltzen den modua.



KEXA-PROZEDURAK:

2019. urtean berdintasun-eskubideen defentsarako arlo horrek kexen 65 prozedura landu ditu. Espediente guztietatik, 31 gomendio bidali dira, guztiak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatu eta bermatzeko proposamenetan oinarrituta. 26 espediente beste instituzio batzuetara bidali dira, eta bidalitako kexa gehienak publizitatearen edo komunikabideen gainean izan zirenez, horietatik 12 Madrilgo Emakumearen eta Aukera-berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokia bidali ziren, kexa horiek aztertu eta bideratu zitzaizkien. Gainera, Arartekora eta Lan Ikuskaritzara ere igorri dira kexa batzuk. 6 eskaera artxibatu dira, gehienetan planteatutako gaia sexuagatiko diskriminazioaren esparruan sartzen ez zelako, eta kasu bitan, eskaera bidali dutenek ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko eskatu zaien informazio gehigarria bidali ez dutelako. Azkenik, prozeduretako bik arlo honen bitartekaritza behar izan dute.

4.1. KOMUNIKAZIOAREN ETA PUBLIZITATEAREN INGURUKO 2019KO KEXEN ESPEDIENTEEI BURUZKO EKARPENAK ETA KONTRASTEAK:

Herritarren eskubideen defentsarako esparruaren eta Begira Batzordearen arteko lankidetzeta-betebeharra dela medio, Defentsarako Arloak herritarrek publizitatearen eta komunikabideen gainean aurkeztu dituzten kexak kudeatu ditu, bai eta Batzordeak berak ofizioz planteatzen dituenak ere.

2019an, 34 kexa-espediente eta aholkularitza-kontsulta bideratu dira. Baina 52 kexa jaso dira, espediente batean 20 eskaera biltzen zirenen eta. Zehazki, 2019ko amaren egunerako El Corte Inglesek egindako publizitate-kanpainari buruzko espedienteaz ari gara

Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 19 gomendio igorri dizkie zenbait erakunderi, kode deontologikoan eta bi dekalogoetan jasotako printzipioetan oinarrituta. 12 eskaera bideratu dira, batez ere Madrilgo Irudiaren Behatokia eta Galiziako Xuntako



Xeral da Igualdade Idazkaritzara. Bi eskaera artxibatu dira, ez direlako Begiraren aplikazio-eremukoak. Azkenik, nabarmendu behar da euskal komunikabide batean argitaratutako albiste bat EAEko Fiskaltzara bideratu dela, biktima adingabe bati intimitaterako eskubidea urratzen zitzaiola iritzita.

Kexaren bat jartzen duten pertsonen profila honako hau da, oro har: emakumea, 31 urtetik 40 urtera bitartekoa, unibertsitate-ikasketaduna eta lanaldi osoko lanpostua duena. Profil hori berdina izan da azken urteetan.

Kexa motaren arabera, (publizitatea edo komunikazioa), gehiago dira publizitatearen arloko kexak komunikazioaren arlokoak baino: 10 eta 24 dira, zehazki. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean, eta neurri txikiago batean, emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako jarrerak edo jokabideak justifikatzearen gainean. Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzearekin lotutako kexak helarazi dira.

Kexak bidaltzeko erabilitako kanalari dagokionez, gehienak mugikorretarako Begira Aplikazioaren bidez bidali dira.

Herritarrek erakunde honekiko harremanetan erabilitako hizkuntza: eskaera gehienak gaztelaniaz daude; euskaraz 6, eta bi kasutan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan bidali dira.

Jasotako kexak, edukien tipologiaren arabera:

Jasotako kexak, bai publizitateari buruzkoak bai komunikazioari buruzkoak, 2019an indarrean zeuden inprimaketako puntuetan oinarrituta aztertu eta sailkatu dira:



Publizitate sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_publicidad_sexista.pdf

Komunikazio sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_komunikazio_sexista.pdf

Publizitate-edukiak:

Erabilera sexista mota nagusiak hauek izan dira: emakumeen gorputza objektu estetiko/sexual gisa erabiltzea eta gaztetasunean eta osasunerako jarrera kaltegarriak ere susta ditzaketen gorputz-ereduetan oinarritutako edertasun-ereduak bultzatzea.

- **Publizitateari buruzko kexak BEGIRaren eskumen-eremuan:**

Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK gomendioak bidali dizkie egoitza soziala EAEn duten zenbait erakunderi. Gomendio guztiak publicitate-dekalogoan oinarritzen dira. Besteak beste, enpresa hauei bidali zaizkie gomendioak: Deustuko Unibertsitatea, UGT, Club Ovalo, Telepizza, Cafés Fortaleza, Don Manuel gozotegia, Gruas Hirukei, Tolosa&Co, Disconsu (inprimagailuko kartutxoak), Club Fortuna.

- **Eskumen-arrazoiengatik besteratatutako kexak:**

BEGIRA batzordearen jarduketarako lurralde-eremua EAE da, eta, beraz, gure erkidegoan egoitza duten entitate publiko eta pribatuak (bai publicitate eremukoak, bai komunikazioarenak).

Halere, era guztietako kexak jasotzen dira, aztertu egiten dira, eta, Batzordearen eskumen-eremutik kanpo badaude, eskumena duen organora besteratzeko dira kexa bidali duen pertsonaren baimen espresuarekin. Gehienak Estatuko Emakumearen



Institutuak duen Emakumeen Irudiaren Behatokia, eta kasuren batean Galiziako Xuntako Xeral da Igualdade Idazkaritzara. Ildo horretatik, kexak jaso dituzten enpresa iragarleak hauek izan dira: Zara, El Corte Inglés, ELLAONE biharamuneko pilularen iragarkia, Dior- Hypnotic Poison, Body Fx (gantza kentzeko metodoa), PhoneHouse, Old Spice, Burgosko areto-futboleko kluba, Ford Kuga, Adidas.

Komunikazioko edukiak:

Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen kontrako indarkeria hutsaltzarekin lotutako kexak helarazi dira; edo emakumeak eta gizonak desberdin eta modu estereotipatuan erakusten eta erlazionatzen direlako aurkeztu dira kexak.

- **Komunikazioari buruzko kexak BEGIRAREN eskumen-eremuan:**

Lehen aipatu den bezala, BEGIRA batzordeak ez dauka funtzio espresurik kexak jasotzeko komunikazioaren alorrean. Halere, eta esleitutako gainerako funtzioak garatzeko, komunikabideek emakume eta gizonen berdintasunarekin bat egiten duten edukiak eman ditzatela sustatzeari dagokionez, bi helbururekin jasotzen dira kexa horiek: lehenik, gomendioak bidaltzeko eta komunikabideetan eremu hauetan sentsibilizazio-estrategiak garatzeko, eta, bigarrenik, detektatzeko zein eduki mota diren audientziak gutxien onartzen dituenak.

EAEko komunikabideen artean, enpresa hauei bidali zaizkie gomendioak: EITB, El Correo, El Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Ser - Euskadiko Lurralde Zuzendaritza, Radio Popular.

- **Eskumen-arrazoiengatik besteraturtako kexak:**

Publizitatearen eremuan bezala, komunikazio-eremuan ere BEGIRAREN eskumenaren-eremutik kanpo dauden kexak jasotzen dira. Kexa horiek, beraz, dagozkien erakundeei bideratzen zaizkie. Gehienak estatuko Emakumearen Institutuak duen Irudiaren Behatokiari. Kexak komunikabide hauen ingurukoak izan



dira: OK Diario Noticias, Mujer Hoy (Vocento Taldea), Antena 3.

Beste komunikazio-tresna batzuk:

- Youtube: egungo egoeraren erantzukizuna emakumeari egozten dion bideoa. Adibidez, emakumeak, biktima izaki, bortxatzaileei eta tratu txarren emaileei barkatzea proposatzen du. Emakumearen Institutura bideratu da.
- Iruzkin misoginoak EAEko kirol-talde bateko kirolari baten Twitter kontuan. Kirolariarekin harremanetan jartzea ezinezkoa gertatu zaigunez, herritarren kexa helarazi diogu klubari, eta eskatu diogu berma dezala jokalariek herritarrekin dituzten harremanetan pertsona guztiak errespetatu ditzatela, kontuan hartuta kirolariak eredu direla jarraitzaileentzat, eta, batez ere, gazteentzat.

Fiskaltzara besteratzea.

Barakaldoko Udaleko Berdintasun Batzordeak Bizkaiko El Correo egunkarian maiatzaren 4an argitaratutako sexu-abusuei buruzko albiste bat aztertzeko eskatu zion BEGIRARI. Lehenengo azterketa eginda, egiaztatu genuen albistean ematen ziren datuek erabat identifikagarri egiten zutela sexu-abusuen biktima (jatorria, zer eskolatan ikasten duen, anai-arreben adina, kopurua eta adina ...), eta, gainera, biktima adingabea zela. Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak ezartzen duenez, biktima adingabeei dagokienez, legez eta ñabardurarik gabe debekatuta dago haien nortasunari buruzko informazioa zabaltzea edo argitaratzea, bai eta biktima zuzenean edo zeharka identifikatzea erraztu dezaketen datuak zabaltzea ere. Hortaz, albistea azterteaz gain, Begirak Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzara bideratu zuen auzia. Fiskaltzak jakinarazi zuen El Correo egunkariaren aurkako demanda aurkeztu zutela dagokion epaitegian, delitu baten biktima den adingabe baten intimitaterako eskubidea urratu zela iritzita.



4.2. BESTE HAINBAT EREMUREN GAINEKO KEXAK:

Lan-eremua:

Lan-eremuaren inguruko hamar kexa eta salaketa jaso dira, gai hauei buruzkoak: bizitza pertsonala eta familiarra eta lan-bizitza kontziliatzeko eskubideak baliatzea; aitatasun edo amatasunagatiko diskriminazioa, eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena, eta abar.

Hori horrela, honako hauek aipa ditzakegu aplikazio espezifikoko arau gisa:

- Langileen Estatutua; 17. artikuluarri jarraikiz, deusezak izango dira sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak dakartzaten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakiak.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Langileen familia- eta lan-bizitzaren kontziliazioa sustatzekoa. Lege hori oso garrantzitsua izan da, legegintza-aldaketak ekarri baititu lan-arloan, langileek dituzten lan- eta familia-erantzukizunak uztartzea errazteko.
- 56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguarena; nabarmentzekoa da horren 22.bis artikulua, enplegua lortzeko diskriminazioa debekatzen baitu.
- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko premia neurriena.

Beste eremu batzuk:

Gainera, kexen gehiengoa izan diren lan-arloko kexez gainera, kirol-arloko, zerbitzuei eta erakundeei buruzko kexak, eta bestelako kexak ere jaso dira, guztiak ere diskriminazio-jarduerei lotuak. Hona hemen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexen zerrenda, kexaren arrazoia eta emaitza zehaztuta:



Q20190010 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lan-diskriminazioari buruzko kexa, amatasunagatik kontratua ez berritzearena
Eraitza	Bitartekaritza eta gomendioak

Q20190014 espedientea	
Kexaren arrazoa	Zaintza-baimena ukatzea ospitaleratze baten kasuan
Eraitza	Arartekoari besteratua

Q20190016 espedientea	
Kexaren arrazoa	Prostituzio-areto bati emandako udal-lizentziaren aurreko kexa
Eraitza	Udalari bideratua

Q20190020 espedientea	
Kexaren arrazoa	Haurdunaldiko arriskuagatiko lan-diskriminazioa
Eraitza	Gomendioak

Q20190025 espedientea	
Kexaren arrazoa	Irudi sexistak musika-eskola baten ikasmaterialean
Eraitza	Gomendioak



Q20190042 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lan-eskaintza sexista
Eraitza	Gomendioak

Q20190045 espedientea	
Kexaren arrazoa	Aldundiari amatasun-prestazioen PFEZa itzultzeko eskatu dion funtzionarioa, Auzitegi Gorenaren 2018ko urriaren 3ko 1462/2018 epaia dela eta
Eraitza	Jada Arartekoari bideratutako kexa artxibatzea

Q20190046 espedientea	
Kexaren arrazoa	Aldundiari amatasun-prestazioen PFEZa itzultzeko eskatu dion funtzionarioa, Auzitegi Gorenaren 2018ko urriaren 3ko 1462/2018 epaia dela eta
Eraitza	Jada Arartekoari bideratutako kexa artxibatzea

Q20190052 espedientea	
Kexaren arrazoa	Posta-zerbitzuko lanpostua eskuratzeko sistemari buruzko kexa
Eraitza	Jada Herriarren Defendatzaileari bideratutako kexa artxibatzea



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Q20190068 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lan-eskaintza sexista
Eraitza	Andaluziako Emakumearen Institutura besteratu

Q20190073 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kategoria profesionalak segregatzea zerbitzu-enpresa batean
Eraitza	Aurretiazko eginbideak - Lanaren Ikuskatzaitzara besteratu

Q20190077 espedientea	
Kexaren arrazoa	Legezko zaintzagatiko lanaldi-murrizketaren banaketa-arazoak
Eraitza	Bitartekaritza

Q20190079 espedientea	
Kexaren arrazoa	EAEko eta Bizkaiko arrantza eta casting federazioen tratu baztertzaileren eta jardunbideen gaineko kexa
Eraitza	Gomendioak



Q20190082 espedientea	
Kexaren arrazoa	Multinazional baten sexuagatiko diskriminazioa kontratu berrietan
Eraitza	Aurretiazko eginbideak - Artxibatzea

Q20190083 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kirol-klub batek tratu desberdina ematea emakumeei eta gizonei
Eraitza	Arartekoari bideratua

Q20190085 espedientea	
Kexaren arrazoa	Seinale sexistak eraikin publiko batean
Eraitza	Besteratua

Q20190086 espedientea	
Kexaren arrazoa	Adinagatiko diskriminazioa
Eraitza	Ez da onartu

Q20190087 espedientea	
Kexaren arrazoa	Arropak saltzeko mezu sexistak darabiltzan saltoki multinazionala
Eraitza	Emakumearen Institutura besteratu da



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Q20190090 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lan-eskaintza sexista
Eraitza	Gomendioak

Q20190091 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lan-eskaintza sexista
Eraitza	Gomendioak

Q20190095 espedientea	
Kexaren arrazoa	Ustezko bazterkeria lantokian mailaz igotzeko
Eraitza	Aurretiazko eginbideak - Artxibatzea

Q20190098 espedientea	
Kexaren arrazoa	Haur-kategorietan neskatoak onartzen ez dituen kirol-kluba
Eraitza	Aurretiazko eginbideak - Aldundiko Kirol Zuzendaritzara besteratu da

Q20190100 espedientea	
Kexaren arrazoa	Sistema judizialaren aurkako kexa, sexu-erasoen aurkako salaketa jarri ondoren
Eraitza	Arartekoari bideratua



Q20190109 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kirol-klub bateko bazkidearen kexa, bularreko haurrari sarrera kobratzen diotelako
Eraitza	Gomendioak

Q20190110 espedientea	
Kexaren arrazoa	Afizionatu-mailako futboleko jokatzeko uzten ez dioten kirolariaren kexa: ez dago emakumeen talderik, eta ez diote uzten jokatzeko bere kategoriako gizonen taldeetan
Eraitza	Gomendioak

Q20190111 espedientea	
Kexaren arrazoa	Ikasmateriala irudi sexistekin
Eraitza	Gomendioak

Q20190112 espedientea	
Kexaren arrazoa	Komunitatean seinale sexistak dituen kafetegia
Eraitza	Gomendioak

Q20190098 espedientea	
Kexaren arrazoa	Haur-kategoriak neskatoak onartzen ez dituen kirol-kluba
Eraitza	Aurretiazko eginbideak - Aldundiko Kirol Zuzendaritzara besteratu da



Q20190116 espedientea	
Kexaren arrazoa	Kirol-diziplina bateko irakaslearen jazarpen sexista.
Eraitza	Eusko Jaurlaritzaren kirol-arloko sexu-abusu eta -jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean arreta emateko zerbitzu espezializatura besteratu da

Q20190117 espedientea	
Kexaren arrazoa	Hizkuntza sexista webgune batean
Eraitza	Gomendioak

Q20190122 espedientea	
Kexaren arrazoa	Erakunde publiko batek tratu baztertzaila ematea
Eraitza	Arartekora besteratu

Q20190125 espedientea	
Kexaren arrazoa	Haurren futboleko aritu nahi duten nesken eskubideak behar bezala bermatzen ez direla salatzen duen ama
Eraitza	Aldundiko Berdintasun eta Kirol zuzendaritzetara besteratu

Q20190127 espedientea	
Kexaren arrazoa	Tutoretza aldundiari esleitzeko prozesuan esku hartu duten zerbitzuen aurkako kexa
Eraitza	Arartekora besteratu



Q20190129 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lankide baten sexu-jazarpena
Emaitza	Tramitazioan

5. 2018. URTEKO GOMENDIOEN JARRAIPENA:

2019. urtean, 2018. urtean bideratutako gomendioen jarraipena egin da. Kasu horietan guztietan, igorritako aholkuarekin konpromisoa hartu dutela erakutsi dute entitateek.

6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:

Beste erakunde batzuekiko harremana dela-eta, 2019. urtean harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin elkarlanean ari gara; hala, zenbait lan- eta koordinazio-bilera egin dira.

Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren arteko Lankidetzeta Hitzarmenaren esparruan, zenbait kexa besteratu zaizkio erakunde horri, beren eskumenekoak zirenez. Era berean, bilera tekniko-politiko bat egin da sail horrekin.



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Azkenik, EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren Klinika Juridikoarekin elkarlanean jarraitzen da. Klinika hori unibertsitate arloan diskriminazioaren kontrako estrategiak diseinatzeko eta giza eskubideak defendatzeko laborategi bat da, eta, aldi berean, Zuzenbidearen ikaskuntza eta eraldaketa pedagogikorako esparru bat.